

MITOA HERRI-KANTU ETA IPUINETAN

Eibar, 2002-XI-28

Jose Mari Satrustegi

Handia da herri-jakintza mailan XIX. mendearen azken alditik honantz euskal kantu zahar eta herri ipuinei buruz egindako bilketa lana eta aberatsa benetan altxorra. Eginkizun dago, halere, material desberdinen iturri eta mezu sakonaz jabetzeko behar-beharrezkoa den edukien azterketa.

Era askotako gaiak eskaintzen ditu, noski, herri zaharren ahozko literaturak eta horien artean bada zenbait mitogai ezkutu. Txosten soil baten epe mugatua luzatzerik ez dagoenez, arautegiko lan honen izenburuari dagokion adibide bat emango dut.

Amak hil nau

Ume txikiei fereka egiteko erabiltzen den lelo ezaguna har daiteke eredutzat. Umeari eskutxoak hartu eta pertsona helduak bere aurpegira hurbilduz errepikatzen zaio. Oso zabaldurik zegoenez joko hau, aldaera asko ditu bazterretan, ia herri bakoitzak bereak. Luzaiden, adibidez, honela diote

*Marrau, marrau,
jantzak haur hau.
Gaur edo bihar?
Gaur, gaur gaur (1).*

Katuaren ildo beretik doa neure etxean ikasi nuena :

*Mixiña marrau,
katubek jan nau
atzo goizien
txitxia ta papa,
marrau, marrau (2).*

(1) María Dolores Echeverría. «Goienetxe» Biskar.

(2) María Karmen Satrustegi. Arruazu.

Anaia Berriotxoak Irun aldean jasotako aldakian aita da hiltzailea lelo honen arabera:

*Amak egin niñuen,
aitak il niñuen,
arreba Maxepatxok (Maria Josepatxok)
pixtu egin nauen (3).*

Aita Donostiak Baztanen bildu zuen testuak katuaren aipua eta aita hiltzailearen kontua uztartzen ditu, ama bera ere jantzaile delarik:

*Mixi marrau
katuak yan nau,
aitak il nau
amak yan nau
arreba ponpoxak
piztu nau (4).*

Katua ez da noski animalia zaharretakoa Euskal Herrian eta, bistan da, *hil nau, jan nau*, leloaren lekuan sartu dela *mixi marrau* ordaina. Harritze-koa da, bestalde, haur txikiari buruz *hil* hitza gogoratzea, ez baitzen hizkera arruntean aipatzen. Horren ordeez, *akautu* (akabatu) abere arruntez, *Kalitu suge*, musker eta beste piztia sakratu batzuei buruz eta, orain bertan, *despeitu da, joan zaigu, utzi gitxi, Jinkoak eraman dizi*, eta antzeko esaerak erabiltzen dira Luzaiden pertsonen heriotza aipatzeko. «Izena eta izana» gauza bera direla uste zeneko pentsaeraren aztarnak dira, eta batak bestea dakarrelakoan sahiesten zen mintzaira arruntean. Haur txikiari zuzendutako *hil* hitzak ez du, noski, heriotz fisikoa esan nahi herri tradizioan, bestela ez baitzen inoiz aipatuko.

Hiltze misteriotsuak, bestalde, *jate* lazgarria darama ekintza bitxian. Galdera da, zein den guraso bakoitzaren papera.

Neuk Urdiainen jasotako aldakian, ama da hiltzaile eta aita jantzailea:

*Amak hil nau
aitak jan nau
neure arreba poxpolintxuek
hezur hutsetan piztu nau.*

(3) H. V. B. Sabadiña Ribera Aramburu, Irun 1959) Anaia Berriotxoak gutunez bidalitako oharra. Geroago *El Bidasoa*, 730. zenbakian (1959.8.8) argitara emana.

(4) P. José Antonio de Donostia. «Apuntes de folklore vasco» BAP VII-1º Sn. Sn. 1951, pág. 29. (En casa de José Iriarte, el cual lo sabía de su abuela).

Aipatutako aita Donostiak berak ere honela dio Baztango beste aldakin batean:

*Amak il nau
aitak yan nau
nere arreba ponpoxa(k)
pixtu nau (5).*

Amaren eskutik datorren tradizioan ez da harritzekoa hiltzailearen zeregina isildu edo sahiestu izana. Antxinako zentzu sinbolikoa galtzean ipuinak, oso gogorra gertatzen da hizkuntza logikoan esatera propioa ama batek onartzea. Baina zer dio herriak?

Ipuina

Duela urte asko Urdiainen jasotako ipuin bat esanguratsua gertatu zitzaidan gai honetan eta bi aldaki hartu ditut eredutzat. Neskato gazte baten lekukotasuna da bat, eta bederatzi urteko mutiko koskorrena bestea. Ama alar-gunaren aldetik jasoa zuen hark eta aita artzaiaren bertsioa zuen bigarrenak. Elkarren osagarri dira biak. Idatziz eman zituzten euren lanak eta honela diote hitzez hitz:

A. *Emakume ikuspegia*

Etxe batian bizi ziran abuela bat, mutiki bat eta beste nesaki bat. Egun batean gizona fan zan soroá eta abuela labeko-iten asi zan. Eta bialdu zituen nesakia eta mutikia basoá abarrak eske, esanaz:

–Lenbiziko etortzen danari emanko deat opil puska aundiena.

Etor zan lenbiziko mutikia eta etxeá ailatu zanean esan omen zean:

–Abuela, zabal atايا!

Abuelak erantzun zion: –Pâzak ba eskubiko eskua! eta moztu zian aizkoriakin eskuturra.

Eta berriz esan zean mutikiak: –Abuela zabal atايا!

Berriz esan zean abuelak: –Pâzak ba ezkerreko eskua! eta atzeá moztu zean beste eskua. Gero, baita anak ere; eta azkenean, mutikiaren gorputza puskatu zen eta pertz batean pâtu zen yosten (egosten).

Etor zan nesakia abarrakin eta geldein zion abuelai: –Nun da nere anaia?

Abuelak erantzun zion: –Soroá fan da bazkariekin.

(5) Artxibo P. Donostia. Lekaroz, XI – 954^a. Fr. Serafín de Yaben. Berroeta (Baztán).

Bea (baina) nesakiek ikus zen pertzean zerbeit bazola, eta esan zean abuelai arek il dela bere anaia eta pertzean daukala yosten.

Eta abuelak esan zian orduen: –Bai, pertzean dago. Bea (baina) esaten ba-deazu zên aitari, zeauri yos-ber (egosi bear) dezut pertzean.

Eguerdi aldean etor zan gizona soroti bazkaitá eta galdein zean abuelai ia nun zan bere semea.

Abuelak esan zean: –Basoá fan da abarretá, eta nesakia bildurrak, etzen itzik atá.

Bazkaltzean abuelak atá zean gizonai bere semean aragi-yosia, jateko, eta jaten zegon bitartean, berak botatzen zituen ezurak nesakiak bildu ta teilatuá iyo zituen eta pâtu zituen mutikiaren forman. Eta azkeinekua pâtu zenien, mutikia asi zan kantaitan:

*«Amonak il nau, aitak jan nau,
nere arrebak ezur utsetan piztu nau!»*

Gizonak aitu zituenien kantaitak galdein zian abuelari ia ze pasatzen dan teilatuen;

Eta arek erantzun zian: –Ze pasatu ber dau! Txoriek kantaitan daudela!

Bea (baina) gizona etzon konforme eta iyo zan teilatuá eta an ikusi zenien bere semea, berekin artu ta eaman zuen sukaldeá.

Eta gio (gero) mutikiek bere arreba urrez jantzi zen berari bizia salbatzea-gatik.

Eta egun batean ere abuela gaisto aura il zan eta aita bi umêkin oso ondo bizi zian.

(Encarnación Celaya. Urdiain, 1965)

B. *Gizaki bertsioa*

Etxe batién bizi zian andra gaizto bat, mutiki bat, nesaki bat eta ebein aita. Gizon aura fan zan soruá, eta andriarek bialdu zian mutikiari eta nesakiari basuá egurrak ekartziá; Eta esan zian, nor etortzen dan lenbiziko opil andiena emanko ziola. Artu zain egurra eta eldu zian etxiá eta mutikiari etor zaion xixakurria; Nesakiek aurriá segitzen zen. Mutikiek esan zian espiatzeko. Eta nesakiek: –Bai eta gio (gero), iri eman opil andiena!.

Mutikiek korrikan yautsi zian.

Pixkât giotxuó (geroxoago), nesakiai etor zitzaion kakakurria.

Mutikiek aurriá segitzen zen, eta nesakiek esan zian espiatzeko.

Eta mutikiek esan zian: –Bai eta, gio (gero) opil andiena itako, ez-ba!

Mutikia ailatu zan etxiá eta esan zian andra gaiztuari: –Zabal ataia.

Andra gaiztu arek esan zian: –Sartu eskua atarzuloti!

Mutiki arek sartu zen eta andra gaiztuak aizkoriekin moztu in zian. Andra gaiztuak esantzian sartzeko beste eskua, anak eta burua eta intzian aizkoriekin danak moztu.

Nesakia ailatu zan eta esan zian andra gaiztuari ia nun zôn mutikia.

Andra gaiztu arek esan zian, abuelân etxien yonko (egongo) zala, txakurra umiek-iten zôla... Nesakia fan zan eta esan zian abuelak an etzôla. Fan zan ebein etxiá eta esan zian andra gaiztuari abuelain etxien etzôla.

–Beste abuelân etxien yonko (egongo) da, txerria umiek-iten zôla. Nesaki aura fan zan beste abuelân etxiá eta abuelak esan zian an etzôla. Fan zan ebein etxiá eta esan zian andra gaiztuari an etzôla; eta bitartien andra gaiztu arek mutikiaren gorputza pertz batien sartu zen.

Tián etxien yonko (egongo) dala, beia txala-iten dôla... Nesakia fan zan tián etxiá, eta tiak esan zian an etzôla.

Fan zan ebein etxiá eta esan zian andra gaiztuari an etzôla.

Nesakiek ikus zen kalderan biazpuntia. Nesaki arek ihan-zian (eraman zion) bazkaia aitari; bazkaitako zian mutiki aura. Ñarrez (negarrez) bazuan biden eta agertu zaion Ama Birjinia eta esan zian ia zengeiti iten zen ñar.

Nesakiak esan zian andra gaiztu arek be (bere) anaia il dela.

Ama Birjiniek esan zian aitik botatzen z(itu)en ezur guztiek jasotzeko eta pátzeko arramayuen zabal-zabala.

Ihan (eraman) zian bazkaia ebein aitari eta aitik bota zituen ezur guztiek jaso zituen eta ihan (eraman) etxiá.

Pátu zituen arramaiuen zabal-zabala eta fan zan ohiá (ohera).

Urrengo goizien jagi zan eta ikus zen jende montona ebein ataien; eta mutikia teilatutik au kantatzen:

*Amak il nau, aítak jan nau,
Poxpolin txuri, arrebak piztu nau!*

Nesakia atâ zan kanpora eta mutikiek eman zian teilatutik soineko polipat.

Nesakiek ihakutsi zian andra gaiztuari soinekua, eta andra gaiztu arek esan zian biandako (berarendako) botatzeko beste soineko bat.

Mutikiek esan zian pátzeko burua tximinien parien.

Andra gaiztu arek pátu zen burua tximinien eta mutikiek bota zian arri aundi bat eta andre gaizto ura il zan.

Eta mutikia, nesakia eta ebein aita ondo bizi zian.

(Antonino Goicoechea, 9 urte. Urdiain, 1965)

Gertakizun trakets eta itxura txarrekoa izan arren gaur egungo pedagogia ahogozagarriarentzat, oso zabaldurik zegoen Euskal Herrian ez ezik beste kul-

tura askotan ere munduan zehar. Lehen irakurketan Grimm anaien ipuin berdintsua gaitzat hartuta testu hurbilketa egin nuen (6), baina antropologia da oraingoan lanaren ardatza eta sinbologiaren ikuspegi sakonetik aztertu behar da gaia, aizkora-ukaldiaren odol isurtze gorria alde batera utzita.

Protagonisten ildotik abiatuz, gaztaroko mezua darama haur txikiari egiten zaion losintxak. Amaren altzotik atera eta biziari aurre egiten hasi beharra adierazten du egurraren aitzakian hartutako mendiko bideak. Erantzunkizunen hasiera alegia. Amaren sabela gogoratzen duen labe berotik ateratako opil goxoaren eskaintzak arintzen ditu aldaparen nekea eta lanaren ardura.

Haurtzaroko bi xehetasun nabarmentzen dira lehen atalean: neskatoak aurrea hartzen dio mutikoari, honek gero gaingituko badu ere; eta bideko elkarriketa bera, gorputzeko behar arrunten aipua haur mailan naturalki esana.

* * *

Atari itxia. Haur aldiko opilaren bidea atzean uztea ésan nahi du ordu arteko etxea itxi izanak. Besoak, hankak eta burua moztea bera, beste eginkizun batzuekin bide eta burubide berrietan abiatu beharra bezala da. Aurreko ibilera eta pentsaerak ez dute balio eta bertan moztzen dira. Iraganaren eta etorkizunaren arteko hesia da gaztetxoarentzat atari itxia. Pertzak amaren sabela irudikatzen du eta bertan egosten den haurraren okeletik bizi berria aterako da gaztaroko ardurekin. Txakur, txerri eta txekor jaio berrien aipamena ez da menditik jaitxierako gorputzeko beharren solas xumea, erditze zantzua eta sexuaren esnatzea baizik.

Amaren paper nagusiak ez du erabat baztertzen aitaren presentzia, haragia jateko besterik ez bada ere. Biziaren iturburuan kokatzen da gizona eta hara itzultzen da seme txikia aitaren barnean murgilduta bere heldutasuna haren lotura gabe hutsetik hasteko.

Mutil gazteak haurrekin duen jarraipena hezurren ardatzean datza, eta arreba moduan agertzen den neskatoa da, hezur biltzaile ofizioan, gazteari eten gabeko bizia ematen dion arima.

Urdiaingo ipuinaren berezitasuna hezurren kokalekua da: teilatua alegia. Lurraren sabelera itzultzea da ohikoa, bertatik bizi berrira ateratzeko. Kasu honetan argisentiko eguzkiak zuzenean ematen die hezurrei izaera berria ama-lurra ernaldtu gabe.

* * *

Ama. Adinekoek *amaizuna* aipatzen dute, *abuela* dio lehen ipuineko neskatoak eta *andre gaistoa* idatzi zuen bigarren berriemaileak. Ahoz kontatu zue-

(6) «Versión popular de un cuento de Grimm» BAP XXI, c. 3-4, pp. 283-299.

nean *ama* zioen. Jakin nahi nuen amaizunaz ezer bazekien, eta ama ona ote zen semea hil zuena, galdetu nion. Pentsati gelditu zen haurra, eta ipuina idatzi zuenean amaren ordeztu *andre gaistoa* jarri zuen. Esan behar da, ama jatorraren ipuina dela hau. Haurraren heziketan amazulo izateari uko egin eta haurraren nortasun garapena bultzatzen duen ama ona.

Ipuinaren arrakasta herri literaturan arrazoi sendoan oinarritzen da: haur asko hiltzen zenez txikitari, gaztaroko heldutasunera iristea zuen amets eta helburu losintxak.

Hiltze horren itzala psikologiki ulertu behar da beraz. C.G.Jung haurtzaroko paradisuaz mintzo da eta adinagatik handik botatzeaz (7).

Autore honek berak Shakespeare-n *Julio Cesar* aztertzean Casio pertsonaiaz dio, amestutako helburua aldatzeko orduan printzea hil beharra bezala dela. Herioaren dardara ulerkaitzak sortzen ditu egoerak barnean eta sentimentu mingarri nazkanteak. Haur giroan hil beharra da helduen munduan sartzeko (8).

J.L. Henderson hiltze honen sustraiak sakontzen saiatzen da eta, bere ustez, haurra ama/semere sustraietara itzuli nahia da horrelako heriotza nozitzeraz bultzatzen duen erakarpina (9). Maitemina baino gehiago, amaren sabelera berriro itzuli nahia dela joera atzerakoiaren zergatia, dio Eric Frommek. Amarekin berriro batzean jaio aurreko egoeran murgiltzeko joera du haurrak (10).

(7) «Es el mundo del niño, el estado paradisíaco de la primera infancia, del cual nos expulsó la ley del tiempo que pasa. En ese reino subterráneo dormitan sentimientos de hogar y esperanza de todo lo venidero». C.G.JUNG *Símbolos de transformación*. La lucha por emanciparse de la madre. Paidós, Barcelona 1982, pág. 295.

(8) «Cuando una estructura de tanta importancia vital como un personaje ideal se prepara para modificarse, es como si tuviera que morir. Entonces produce en el individuo presagios de muerte difíciles de comprender, es decir, en apariencia infundados, y dolorosos sentimientos de astío del mundo (...) el mundo infantil quiere desaparecer, a fin de ser sustituido por la fase adulta». C.G. JUNG, *ibid*.

(9) «El rito retrotrae al novicio al más profundo nivel de la originaria identidad madre/hijo o identidad *ego/sí mismo*, forzándose a experimentar de ese modo una muerte simbólica. En otras palabras, su identidad se desmembra o disuelve temporalmente en el inconsciente colectivo. Después de rescatado de esa situación mediante el rito del nuevo nacimiento. Este es el primer acto de la verdadera consolidación del ego con el grupo mayor, expresado como tótem, clan, tribu o la combinación de los tres. El ritual, ya se encuentre en grupos tribales o en sociedades más complejas, insiste invariablemente en ese rito de muerte y resurrección que proporciona al novicio un 'rito de paso' de una etapa de la vida a otra siguiente». Joseph L. Henderson. *El hombre y sus símbolos*, Paidós, Barcelona 1981, pág. 128.

(10) «El rechazo a separarse de la madre puede tomar formas más extremas. Más profundo y aun más profundo que el deseo de ser amado y protegido por la madre durante toda la vida, es el deseo de ser uno con ella, de regresar a su seno y, finalmente, de anular el haber nacido. Entonces, el seno materno se convierte en tumba, la madre en tierra en que 'enterrarse', el océano en que ahogarse. No hay nada de 'simbólico' en esto; tales anhelos no son 'disfraces' de deseos edípicos reprimidos». Eric FROMM, *Lo inconsciente social*, Paidós, Barcelona 1992, pp. 55 y 58.

Mittoa. Euskal ipuin xume honen euskarria, azken finean, mito unibertsal baten ardatz nagusian datza. *Osiris* heroi edo jainko zatikatuaren antzeko historia da. Haren gorputz atalak Egipton zehar sakabanatuak izan ziren eta *Isis* bere arrebak, edo emazteak beste aldaki batzuen arabera, arretaz bildu zituen puska guztiak hildakoa bizira itzuliz.